



Erabakia, 2025eko urriaren 24koa, Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako Errektoreordearena, 2025-2026 ikasturtean AITZINATU programan onartutako eta baztertutako eskarien behin betiko zerrendak argitaratzeko dena

Euskaraz irakasten duten UPV/EHUko irakasleei irakaskuntza-materialen hizkuntza-kalitatea hobetzeko hizkuntza-prestakuntza eta aholkularitza emateko helburuarekin argitaratu zen AITZINATU programa 2025eko irailaren 22ko deialdian.

Eskariak jasotzeko epea bukatuta, eta eskariak aztertu ondoren, 2025eko urriaren 14an argitaratu ziren behin-behineko onartuen eta ezetsien zerrendak.

Erreklamazio epea amaituta,

Hau erabaki dut:

Lehena: AITZINATU programan parte hartzea eskatu dutenen onartuen eta ezetsien behin betiko zerrendak argitaratzea.

Bigarrena: Erabaki honen aurka aukerako berraztertze errekurtsua aurkez dakioke Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordeari hilabeteko epean, edo, bestela, administrazioarekiko auzi errekurtsua jar daiteke zuzenean administrazio auzietarako dagokion epaitegian bi hilabeteko epean.

Leioan, 2025eko urriaren 24an

Miren Igone Zabala Unzalu

Euskara eta Hizkuntza Plangintzarako errektoreordea
Vicerrectora de Euskera y Planificación Lingüística